

Hemengo egia, Madrilen

Egunkaria, 1991-08-18: 2.

Orain astebete zabaldu zen susmoa: egia, gezurra ote zen. Lehen ere gertatu da honelakorik, baina orain honelako mudantzak ordu batetik bestera gertatzen hasiak dira. Uda honetan batipat. Egia hau gordeta zegoen iturritik bota zuten gordin-gordina: Autobiaren korapiloa desegin zela, agintzen jarri berri denak askatu zuela. Egia sinesgaitza zirudien, baina batzuk sinetsi egin zuten, komeni zitzaielako. Kontrarioak, berriz, federik ez, eta laster aurkitu zioten egi borobil leunari ertza; ertzetara begira jartzen zaren bakoitzean, badakizu, begia okertzen zaizu, makurkerian hasten zaren bezain laster ikusten dizkiozu itxuari koloreak, eta egiaren ertz honi ikusi zioten berehala "Zakilixut"en Armi-Armarena. "Hau betikoa duk" esan zuen bere golkorako kolore hori salatzen bizi zenak. Baina oraingoan zerbait gehiago esan beharrean isilik geratu zen eta: "el que calla otorga" k ertzari arrosa kolorea erantsi zion denen aurrean. Mundua geratu zen harri eginda! Ezen ohizko kombinaketa; baina handiagoak ikusten ohitzen hasiak garenez gero, isilik geratu ziren sozioak. Baina gertatzen dena da isiltasuna dela gehien entzuten dena zezioetan, eta isilune honek ernegarazi zuen kontrarioak izpiritu baten indarra gogorazi zuen. Hor piztu zen argia Madrilen, eta oporretan zegoen jefek hondartzatik bota berri du irrintzia: bera dela arrosaren jabea, ez hemengo jauregian bizi den ordezkoa eta egia osoa egin dadila gure ilunpe honetan. Eta hala hitza jan behar izan dute hemengo bildotsak, ezabatu dute egia borobilean utzi zuten arrosa kolorearen marka, nahiz eta aipatutako ertza, jatorrizko bekatua, hor badirau ere.